

1904

Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal festen XXIII-garren urtea)

¡ETZAITEZ ILL, AMACHO!

Berrogeita amar pezetako sari bat eta Villafranca-n irabazitako moldaera

Begoz Euskal-erriko mendien begiak
 Zerura begira ta zeruruntz jagiak!
 Zeruan jarriak
 Arkitzen dira bada gauza pozgarriak.
 An dagoz lur ontako seme leñargiak (1);
 An Larramendiak,
 An Astarloak eta Oienart andiak!...

¡Ai! baiña eder-zaleak mendiok badira,
 Ezpeie gaur begitu euskaldun errira.
 Onen arpegira
 Ezaiñtasunen loiak asko jausi dira...
 ¡Ai! bere oiturak oraiñ lengoak eztira!
 ¡Lur oni begira
 Mendiok oraiñ beñtatzat jarriko ez aldira!

(1) Ilustres.

Mendietatik *mur mur* dator ur ederra...
 Betor, baiña negarrez, lur onen gañera,
 Aitorren izkera
 Zarrari negarrakaz negarra kentzera.
 Ta Euskal-erriko chori maiteak batera
 Amaren aurrera,
 Negar soiñuan betoz kantatzen Euskera.

Euskal usaiñdun lora zuri ta gorriak,
 Zabaldu biotzareri albotiko orriak...
 Ta orricho guztiak
 Izan beitez Amaren negarraz bustiak.
 Gorde maitetasunez, lora maitatiak,
 Amaren begiak
 Eskeiñtzen (1) dautsuezan negar ugariak

Ta ¡ai! zeinbat... xeiñbat dira Amaren negarrek!
 Auzpazturik jarri dau negarren iñdarrak
 Euskaldunkaskarrak:
 ¿Noizko, noizko dozuez biotzeko garrak?
 ¿ta noizko dira Asaben odolan ondarrak?
 Biotz Amatarrak,
 ¡Negarrez ezpei galdu bizia Ama zarrak!

...¿Zer baiña? ¿Lotan zagoz oiñdik, euskalduna,
 Illtzen ikusi-arren Amacho kutuna?
 Berenosasuna
 Zure miña (2) da, balitz beretzat biguna,
 Euskera balitz beti bertan daukazuna..
 ¿Non dozu zentzuna?... (3)
 Erdu ¡ia osatutera Euskera leguna!

Bertor miñ euskalduna bere sendagarri
 Ziurrak emotera Ama gaisoari (4);

-
- (1) Ofrecer.
 (2) Lengua.
 (3) Sentido.
 (4) Enfermo.

Euskadin eztarri

Guztiak izan beitez Amaren kantari,
 ¡Eskeiñi ia biotzak loturik alkarri
 Amacho Euskerari,
 Eurotan osasunez egin daiten jarri! (1)

Negarrik egin barik, poztasun betean,
 Amacho bizi beite euskaldun-artean.

Ta Amagaz batean
 Zoriz biziko gara, Asaben antzean..
 Entzun daitela beti emen ta urrunean:
 «Amaren pozean
 Poz pozik (2) bizi gara lur onen ganean.»

«Maite zaitut, Amacho, ¡ez egin negarrik!
 ¡Zeiñ seme biziko da, Amacho, zu barik,
 Umezurtz egiñik?
 Seaskan (3) nengoala zugaz alkarturik,
 Zugaz gura dot egon betiro baturik.
 Ta zugaz egonik,
 Badaukat lur onetan naiko zorionik».

Itz onek dira Amantzat osasungarriak,
 Eurak entzun-gurarik daukoz belarriak
 Osoro larriak...
 Biotzak ezpanetan kanporuntz jarriak
 Ipiñi beiz Amantzat itz aiñ pozgarriak,
 Atsegingarriak,
 Amaren bularrentzat arnasa (4) barriak

Foru ta oitura zarrak tamalez galdurik,
 ¿Euskaldunak zer dauko jagokon gauzarik?
 ¡¡Amacho bakarrik!!
 ¡Illten baiaku bera eztoгу besterik!

(1) Sentar.

(2) Muy gozosamente.

(3) Cuna.

(4) Aliento.

Maitatu daigun bada Euskera Ama gaurtik
Biotz-biotzetik.

¡Ezpeite inoiz aldendu, ez, Euskal-erritik!

¡Etzaitez ill, euskaldun lurreko Erregiña:
Jaunak Paradisuan lorakaz anchiña
Amatzat egiña!

Zu zara nire biotz-barruko atsegiña,
Zu zara nire ezpanak dauken krabeliña
¡¡Zutzat nire miña,

Goso gosoa beti, inoiz ez samiña!!!

PAULO ZAMARRIPA-KOA.

1904

Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XXIII-garren urtea)

AITA ANDRES URDARETA-REN

OROITZIAN, KANTACHOA

Berrogei pezeta eta bitezarra Villafranca-n irabazitako moldaera

Besuk sendo gurutzetu ta
pentsamenduasuturik,
arritutzen naiz nola utzi zan
gizon argiya illunik:
arritutzen naiz libru zarretan
añ billatuba izanik
onratutzeko nola mugitu
etzan lenago gizonik,
baziruditen etzekitela
Urdaneta-ren izenik.

¡A! nere luma kamutsak ezer
ez argiratu gantikan,
izkribu abek saltatzen dira
euskaldun biyotzetikan:
alare zuri kantatutzeko
etzet izpirik lotsikan,
goitalchatuaz damu gabarik
gozoro eta pozikan,
dana guziya opako dizut
chiskatu gabe itzikan.